

## **EUROPAKO ERASMUS+ PROGRAMAREN ESPARRUAN IKASLEAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK**

Ikasle bakoitzak lortutako azken puntuazioa ondoren adierazten diren ataletan lortutako puntuazioen baturak osatuko du, gehienez lortu daitekeen puntuazioa 11 izanik.

1. **Espediente akademikoa (%40).** Heziketa zikloko 1º mailan egindako eta ebaluatutako modulu guztien batez besteko nota. Gehienez 4 puntu lor daitezke. **1º mailako moduluren bat egiteke duten ikasleek ezin dute beka hau jaso.**

Batez besteko nota kalkulatzeko, gainditutako moduluak eta baliozkotzeak honela hartuko dira kontuan:

- a) **Gainditutako moduluak:** modulua kode berdinarekin egin denean beste edozein heziketa ziklo batean. Nota espedientean agertzen dena izango da.
  - b) **Baliozkotze ofiziala:** modulua kode ezberdinarekin egin denean beste edozein heziketa ziklo batean. Nota espedientean agertzen dena izango da.  
**Salbuespena:** "Ingeles teknikoa" irakasgaiaren baliozkotze ofiziala B2 edo goragoko titulu ofizialen bat izateagatik eskatu denean, nota 5 izango da.
  - c) **Barne-baliozkotzea:** modulua kode ezberdinarekin egin denean, baina edukiak antzekoak direnean. Nota lehentsia 5 izango da, irakasleak beste notarik ezartzea ez badu erabaki.
  - d) **Salbuespena:** 45 urtetik gorakoak ingeles teknikoa egiteko salbuespena duten kasuetan, batez besteko nota egindako gainerako irakasgaien gainean kalkulatu da.
2. **Zeharkako gaitasunak (%60).** Ikaslea matrikulatuta dagoen zikloko irakasleen balorazioa. Gehienez 6 puntu lor daitezke. Ondorengo irizpideak positiboki baloratuko dira:
    - a) Erantzukizuna (%20)
    - b) Autonomia eta ekimena (%20)
    - c) Errespetua (%20)
    - d) Asistentzia (%20)
    - e) Puntualtasuna (%20)

**Ikasleak jokabide desegokiari buruzko txostenen bat badu, modu negatiboan baloratuko da.**



3. **Hizkuntza.** Baldintza hauetakoren bat betetzen duen ikasleak puntu 1 lortuko du:
- a) **Aurreko edo oraingo ikasturtean eskolaz kanpoko ingeleseko edozein ikastarotan matrikulatuta egon izana.** Ikasleak ikastarora joan izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.
  - b) **Ingeleseko B1 edo goragoko edozein titulua izatea.**

Hautaketa egin ondoren, emaitzak jakinaraziko zaizkie interesdunei. Hautatuen eta erreserban dauden ikasleen zerrendak Politeknika Txorierriko webgunean argitaratuko dira.

Ikastetxeko Erasmus+ programaren arduradunak kanporatu egin ditzake hautatutako ikasleak, mugikortasunaren aurreko prozesuan konpromisoak betetzen ez baditu: dokumentazioa entregatzea, bileretara ez joatea...

**Azken esleipena heziketa-ziklo bakoitzean izena emandako ikasleen kopuruaren eta eskura dauden enpresen arabera izango da.**

